



Defendatzaileen

— Buletina —

Boletín Defensoras

Ekaina - Junio 2022

Aurkibidea



01

Aurkezpena

02

Artikuluia: 'Zaintzen krisia eta horiek ekiteko sare feministak nola ehundu'

03

Emilia Larrondori elkarrizketa. Munduko Emakumeak "Babel"

04

Defendatzaileen inguruko tailerren erreportaiak, otsailetik maiatzera bitartean

05

. Cony Carranzari elkarrizketa

06

Agenda ekainak 2022

07

Olerkia

Aurkezpena

Irakurle maitea,

Lumaltik Herriak-etik bultzatzen ari garen #OihartzunTalka kanpainaren azken buletina aurkezten dizugu. Beti bezala, ilusio handiz eta sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkalaren aurkako borrokak kolektibizatzeke asmoarekin, Erdialdeko Amerikako eta Euskal Herriko lurraldeak hurbilduz. Horretarako, elkarrizketarako, elkartrukerako eta sentsibilizatorako guneak sortzea funtsezkoa dela uste dugu. Espazio horietan, gure gorputz-lurra defendatzen duten eta Erdialdeko Amerikako hainbat lurraldetatik datozen emakumeek beren borrokak eta esperientziak partekatzen dituzte, Euskal Herriaren eta bere prozesuen arteko elkartasuna sustatuz, herrien eta emakumeen autonomia defendatzearen alde.

Lehen buletinak ikusi ez badituzu, gogoraraten dizugu #OihartzunTalka 2021eko udaberrian kaleratu zela, Erdialdeko Amerikako emakumeek bultzatutako bizitzaren eta lurraldearen defentsa-prozesuetan jasandako egoeren aurrean ahotza altxatzeko helburu tinkoarekin. Komunitatearen defendatzaile izateak dakarren egoerak salatu nahi ditugu, haiek burututako ekintzak sistema kapitalista estraktibista eta patriarkalaren aurka duten eragina gurera ekarriz. Sistema honek maila globalean inposatzen da eta sistematikoki bortxatzen gaitu uneoro. Hau da, salaketa-kanpaina bat sustatu dugu, gogoeta egiteko eta zaintza eta autodefentsa-ekintzak bideratzeko.


Buletin honen gai nagusia zainketak dira, defendatzaileen borroka prozesu guztietan zehar funtsezkoak diren horiek, alegia. Hurrengo orrialdeetan, gogoeta egingo dugu autozainketek eta zaintza kolektiboek, bai gure egunerokotasunean eta bai erakundeen baitan, borrokan eta militantzian duten garrantziaz. Eredu kapitalistak ezarritako bizi-erritmoek eta gure gorputzen eta naturaren gaineko etengabeko erasoek eremu pribatura baztertzen dituzte zainketak, eta zalantzan jartzen dute bizitzari eusteko duten funtsezko funtzioa. Horregatik, zainketen gaia berariaz landu dugu tailerretan eta hitzaldietan, eta zeharka jorratzen ari gara kanpaina osoan zehar.

Buletin honetan feminismoei, zaintzei eta gure gorputzen eta ingurumenaren defentsari buruzko hainbat artikulua interesgarri aurkituko dituzu. Halaber, defentsariei egindako zenbait elkarrizketa ere, beren borroketan zaintzak nola lantzen dituzten ezagutzeko. Horrez gain, martxoan, apirilean eta maiatzean egin ditugun tailerren inguruko argazki erreportai bat ere badugu. Bukatzeko, programatutako hurrengo jarduerari buruzko informazioa eta Jatenahun herriko Subcomandante Insurgente Pedro eskolako ikasleen poema bat aurkituko dituzu, Zapatisten Laguntza baseetatik zuzenean jasota.

Hezkuntza@lumaltik.org helbidean edota gure sare sozialen bidez gurekin harremanetan jartzeko aukera dago.

Ongi etorri!





Zaintzen krisia eta horiek ekiteko sare feministak nola ehundu



Martxoaren 8ko manifestazioa, 2022an, Bilbon
Argazkiak: Marina Gallardo

Martxoaren 8an, mugimendu feministak Bilboko kaleak hartu zituen, auzo bakoitzeko antolaketak politiko-feminista aldarrikatuz, feminismoek gizartea eraldatzeko borroka motor izaten jarrai dezaten. Aurten, “Antolakuntza feministaz zaintza sistema publikoa borrokatu!” leloarekin, mobilizazio feministaren eskaera nagusia zainketa publikoetarako eta azpikontratarik gabeko sistema bat abian jartzea izan da.

Bizi garen sistema kapitalista hau merkatuetan oinarritutako ikuspegi ekonomiko batean oinarritzen da, eta pertsonen eta naturaren ustiapenean oinarritzen den kapital-metaketa mugagabea du helburu nagusizat. Begirada horrek kontsumoan oinarritutako ongizate estandarrek inposatzen ditu, kontsumo hori ahalbidetzen duten baliabide ekonomikoak lortzeko pertsonen egiten duten lan ordaindua soilik baloratuz.

Ekonomia ulertzeko modu horrekiko bi kritika nagusi daude. Lehenengoa, mugimendu ekologistetatik eta lurraldearen defentsatik dator, natura soilik jarduera ekonomikorako baliabide bat ez dela salatzen dutenak, baizik eta bizitzaren ugalketa eta antolaketa sozio-ekonomikorako moduak ematen diren espazioa dela, alegia.



Bigarrenak, mugimendu feministatik dator, gertatzen ari den guztiaren zergatia ekonomiaren piramidearen oinarrian jartzen duena. Piramide hori funtsezkoa da bizitzari eta sistemari eusteko, baina historikoki inhibitu eta gutxietsi egin da: zaintza-lanak deiturikoak. Zainketak etxeko eremu pribatura mugatzen dira eta pribatizatu, feminizatu, arrazializatu eta ikusezin bihurtzen dira.

“Interdependentzia eta ekodependentzia gure biziraupenaren oinarri material gisa hartzen baditugu eta, beraz, zainketek bizitzaren jasangarritasunerako duten garrantzia – eskubide gisa ulertuta eta ez pribilegio gisa –, gizarte osoak modu erantzunkidean partekatu behar ditu zaintzak.” (REAS Euskadi)


Pasa den martxoaren 8an Bilboko mugimendu feministak egindako aldarrikapena kapitalaren eta bizitzaren artean dagoen liskarra ikusarazteko beharretik sortu zen. Izan ere, esparru orokor batean, kapitalismoa gure planetarekin gerran dagoela planteatzen du. Bizitza batzuk beste batzuen kontura ematen dira, bizitza ugalketarako baliabideak kapital-metaketaen zerbitzura jartzen direnean bizitza beti izango da arriskuan.

Hala ere, badira zenbait gai zaintzak erdigunean jartzearen inguruan sortzen direnak. Zer da bizitzaren iraunkortasuna? Zein bizitza lortu nahi dugu kolektiboki? Zer da bizitza mezezi duen bizitza bat? Askotariko zapalkuntza mota dituen sistema honetan hainbat testuingurutan zainketak nola ulertzen diren ulertzera garamatzaten galderak dira. Iparralde globaleko zaintza-krisiari “konponbidea” emakume migratuak zainketa lanetara bultzatzea izan da.

Arautu gabe dagoen sektore bat, oinarriko lan eskubiderik ez duena (ordaindutako oporrak edo langabezia-prestaziorako eskubideak esate baterako) eta gizarteak biziki gutxiesten duena. Hau klase, arraza eta genero zapalkuntzen interseksionalitateari dagokio, merkatu ekonomia elikatzen baita gutxi batzuen bizitza pribilegiatuari eusteko.

Gure Ipar global honetan, zaintzaren esparruko problematika kapitalistari heltzeko proposamenek bizitza erdigunean jartzea barne hartzen dute, eta hori eredu sozio-ekonomikoan egiturazko aldaketei aurre eginez baino ezin da egin: zainketen berrantolaketa soziala, zainketa-lanen prestazioaren ekitatea, zainketa-lanen balorizazioari eta estrategia integral eta transbertsal batean integratzea, mendekotasunari eta gizarte-zerbitzuei arreta emateko politikak eta gizarte-zerbitzuen erantzukizun publikoarekin.

Martxoaren 8ko manifestazioa, 2022an, Bilbon
Argazkiak: Marina Gallardo



Baina Iparraldeko gizarte-mugimenduek egiten dituzten eskaerak Hegoalde globaletan ematen direnekin elkarrizketan sartu behar dira. Lumaltik Herriak-etik, Erdialdeko Amerikako defendatzaileekin egiten dugun lanak erakusten digu defendatzaileentzat zainketak beste errealitate batzuetatik ulertzen direla, zapalkuntza anitzek eta erauzketa-enpresek beren gorputz-lur lurraldeei egiten dizkieten etengabeko erasoek zeharkatuta. Borrokan, erresistentzian bizitzeak beste enuntziatu-leku batean kokatzen ditu. Zaintzak beren beharretatik eta bizitzaren ikuspegietatik izendatzen dira.

Erdialdeko Amerikako lurraldeko emakume defendatzaileentzat, zaintza lanak banakako eta taldeko sendatze-guneak sortzea esan nahi du, izan ere: “borrokak kezka ugari eragin dizkigu, hildako ugari zenbatu behar izan ditugu, tamalez” (Stacy Velázquez, Guatemala). Segurtasuna eta osasun mentala lantzea da, defendatzaile izatea eta borrokan bizitzea indarkeriaren boterea eta monopolioa dutenen mehatxuekiko estres eta beldur handiarekin bizitzea delako. Deskonektatu eta atse den hartu. Ibaiekin, mendiekin eta suarekin sendatze prozesuak gauzatzea.

“Nire aburuz, gurea denaren alde borrokan jarraitzea litzateke sendabiderik hoberena. [...] Ez zaitez hain erraz erori, baina erortzen bazara, jaiki eta borrokatzen jarraitu behar duzu.””, Tania María Iden (Honduras).

Martxoaren 8ko manifestazioa, 2022an, Bilbon
Argazkiak: Marina Gallardo





Martxoaren 8ko manifestazioa, 2022an, Bilbon
Argazkiak: Marina Gallardo

Era berean, beharrezkoa da erakundeen barruko zainketen gaiari ekitea, Morena Herrera (El Salvador) dioen bezala, “Ekintza hauen erdigunean kokatu gaitzakeen jokabide proaktiboak bideratzen ez baditugu, azken finean, hainbeste gogaitu eta zapaldu gaituzten eskema berberak errepikatzen kondemnatuak gaude, sustatzen ari garen aldaketa sozial guztiak bertan behera utziz”.

Defendatzaileen kasuan, zainketak arbasoekin lotuta ere egiten dira: “Banaka, lan oso gogorra da. Ia egunero egokitzen zaigu hildakoren bat aurkitzea edo gorpuak mugitu behar izana. Nire kasuan, asaberen harrietara jotzen dut, energiak berrindartzeko nire gunea da. Bertan nire amonarekin batzen naiz berriro ere eta lurrarekin dudan harremanarekin bat egiten dut, bere solasaldi etengabeekin batera.” (Micaela, Honduras).

Lumaltik-etik elkartasunaren aldeko apustua egiten dugu, borroketan eta bizitzari eusteko laguntza espazio berriak izango diren harreman eta sareak sortzeko.

Audre Lordek dioenez: “Emakumeentzat, elkarri laguntzeko beharra eta nahia ez dira patologikoak, berrerosleak baizik, eta ezagutza horretatik abiatu behar da gure benetako boterea berraurkitzeko. Benetako lotura horrek beldurrak pizten ditu mundu patriarkalean” (Lorde, 1979).



Emilia Larrondori elkarrizketa, Mujeres del Mundo Babel elkarteko

“Maitasunetik eta konfiantzatik abiatuta, lan egitea eta sarea ehuntzea”

Emilia Larrondo Mexikotik dator eta duela 4 urte migrazio prozesuari ekin zion. Munduko Emakumeak, Mujeres del Mundo Babel erakundeko ki-dea da, eta Lumaltik Herriak eta Ecuador Etxea elkarteekin lanean ari da lurraldearen zaintza eta defentsa ikusarazteko, defendatzaileekin batera.

2022ko udaberrian Euskal Herriko hainbat tokitan egin diren tailer, topaketa eta hitzaldien prozesuaz hitz egin dugu berarekin.

G: Zein da zuretzat proiektuaren ekarpen nagusia?

E: Niretzat, proiektuaren aberastasun handiena, zaintzek eta autozainketek erakundeen barruan duten garrantzia ikusaraztea izan da, eta lurraldea defendatzen duten lankideen esperientziak partekatu ahal izatea Ipar globaleko lurralde horietan. Bestalde, hainbat lekutatik etorritako emakumeek parte hartu izana, gure esperientziak eta neoliberalismoak nola eragiten digun partekatzeko aukera izatea oso aberasgarria



izan da ere; eredu hegemonikoa zalantzan jartzea eta beste bat eraikitzearen alde lan egitea, zaintza erdigunean jarritz.

G: Zer erronka antzeman dituzu proiektu honen prozesuen ondoren? Zer espero dezakegu etorkizunera begira?

E: Lurralde horietan bizi diren dibertsitateak eza-gutzea eta ikusaraztea: emakume migratuak, bertakoak, aniztasun sexualak, arrazak edota klaseak zeharkatutakoak. Elkarrekin eraiki ahal izatea da orain dugun erronkarik handiena, batzen gaituena aldarrikatu behar dugu bereizten gaituena baino gehiago. Baina, era berean, bakoitzaren erritmoak zeintzuk diren aitortuz, zer onar dezakegun eta zer ez, zaintzaren funtsezko parte baita. Gure esperientzietatik abiatuta, eman ditzakegun jakintzak zein diren jakitea.

G: Zer izan da zuretzat prozesu honetako gauzarik interesgarriena?

E: Oso interesgarria izan zen emakumeek autozainketaren aurrean zituzten beharrak zein ziren ezagutzea. Bertako emakumeek garrantzi gehiago ematen zioten denbora izateko beharrari; bestalde, emakume migratuek, bizi izandako egoera gogorak adierazten zituzten, hala nola sarerik eza, beste lurralde batera iristen zarenean oso bakarrik baitaude. Baita migrazio doluarekin zerikusia duena ere. Beren bizitzak salbatzeko modu behartuan etorri behar izan duten eta borrokatik aldendu eta han lagunak utzi behar izan dituzten defendatzaileak, familia eta lurralde batekin lotzen zaituen guztia (usainak, paisaiak, zapoak) atzean utzita. Hemen bizirauteko zaintza lanak bere gain hartu behar izatea ere, beste aukera batzuei uko eginez.



Defendatzaileen

Inguruko tailerren otsailetik maiatzera
bitartean





Haziak eta lurraldearen defentsa tailerra

1 2022ko martxo

Mutriku

Alaitasunari, erlaxatzeari, dibertitzeari, elikatzeari eta elkar zaintzeko eta sendatzeko espazioak partekatzeari lekua utzi behar diogu. Espazio informalak politikoak eta iraultzaileak ere direlako.



“Gure gorputz eta lurraldeen defentsarako zaintzak” tailer zikloa

📅 2022ko apirila eta maiatza

📍 Emakumeen Etxea (Donostia)




Zein da gure helburua? Ongi Bizitzeko autozaintza praktika ezberdinak identifikatzea. Garen guzti hori onartu behar dugu, erruarekin eta isiltasunarekin hautsiz:

***Aitortu
Leheneratu
Elkartu***

“Feminismo anitzak: zaintzak, sentipenak eta sexualitateak” tailer zikloa

📅 2022ko apirila eta maiatza
📍 Emakumeen Txokoa (Azpeitia)



“Nola berreskuratu ditzakegu lurra eta lurraldea? Autonomia defendatuz. Elikadura bermatuko duen autonomia, kolektiboa eta naturarekiko orekan izango dena, norberaren gorputzaren gainean erabakitzeke eskubidea aitortuko duena, botere harremanik gabea, gu zaintzeko erantzukizun partekatuak izango dituen eta alaitasunari, harmoniari eta orekari balioa emango diena.”



Cony Carranzari elkarrizketa



“Bide luzea dago oraindik egiteko, baina borrokan jarraituko dugula zihur nago, zaintzaren, alaitasunaren eta kemenaren bidez”

Cony El Salvadorren jaio zen eta 17 urte daromatza Euskal Herrian bizitzen. Munduko Emakumeak eta Mujeres del mundo Babel elkarteetako kidea da.

G: Zertan ari zara orain Lumaltik Herriak eta Ecuador Etxearekin lanean?

E: Lumaltik-ekin oso prozesu interesgarria eta sakona egiten ari gara aspaldidanik, oso garrantzitsua den gai baten inguruan darabilen jardunaldi eta gogoeta bideratuz, iraultzailea dela esango nuke. Feministak, migratuak eta emakumeak garen aldetik, zainketei eta autozainketari buruz hausnartzea eta jardun ahal izatea funtsezkoa delako guretzat.

G: Zein da zuretzat proiektuaren ekarpen nagusia?

E: Prozesu horietan, hainbat tailerretan parte hartu dut, eta oso garrantzitsua iruditu zait bertako emakumeekin eta emakume migratuekin zaintzak lantzea. Emakume migratuekin etenaldi bat eta gogoeta egiteko aukera paregabea izan da. Haiek ere zaintzaileak dira, eta geure buruari galdetu behar diogu nola gauden, ondo jaten dugun, lo egiten dugun, nola garbitzen garen... Hau da, autozainketa funtsezkoa dela konturatzea, bai maila pertsonalean, bai kolektiboan. Eta, bide batez, autozainketak zaintza kolektiboan ere eragina duela ohartzea, besteak zaintzeko neure burua zaindu behar dudalako. Emakumeekin ikasitako ikasgaia da hori.

Baita gure gorputza ezagutzeko aukera izatea ere, gozamina ezagutzeko aukera alegia. Euskal Herrian zaintzari eusteak dakarren nekeaz, errutinaz eta estresaz hitz egiteko aukera izatea. Pozaz hitz egitea ere noski, gustatzen eta osasuntsu jartzen gaituen guzti horretaz.


G: Zer erronka antzeman dituzu proiektu honen prozesuen ondoren? Zer espero dezakegu etorkizunera begira?

E: Militantzia nola egiten dugun, geure buruak zainduz eta gure gorputzak eta gure bizitzak alde batera utzi gabe. Ahizpatasuna, migrazioa eta zaintzak lotzea erronken, egote, jardun, erresistentzia eta kontraesanen parte dira. Geure burua beste modu batera zaintzeak dakarren guztia mahai gainean jartzea da.

G: Zer izan da zuretzat prozesu honetako gauzarik interesgarriena?

E: Ibilbide honetan espreski sortu den zerbait

zaintza eta autozainketaren gaian beste sinergia batzuk sortzeko aukera izan da, bai militantzietan bai egunerokotasunean. Emakumeek eztabaidarako, pribilegioak onartzeko eta zaintzak ikusarazteko beste ikuspegi eta modu batzuekin topo egiteko gune horien garrantzia azpimarratzen zuten behin eta berriz. Beste eredu batzuekin hausteko aukera: ez dugu errezetarik, baina ibilbide historikoa egiten ari gara. Denbora beharko da noski, gatazka ez baita baztertzen, baina bilaketa horretan, planeta suntsitzen ari den heteropatriarkatua zapuztu ahal izateko borrokan ezinbesteko sareak eta aliantzak eratzen ari gara. Defendatzaileak borroka eta esperientzia luzea duten emakumeak dira. Argia dakarte Euskal Herrira.



AGENDA

EKAINAK 2022




Ekainak

<u>Al</u>	<u>As</u>	<u>Az</u>	<u>Og</u>	<u>Or</u>	<u>Ir</u>	<u>Ig</u>
		01	02	03	04	05
06	07	08	09	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

Gure lurraldearen defentsa feministarako Eskola Ibiltaria

05

I. MODULUA. BILBO “Barne indarrekin bat egiten”

 Ecuador Etxea (Botika Zahar Kale, 21)

 Nathalie Bejaranok gidatutako tailerra

Bertako emakumeen eta beste egoera batzuetan dauden emakume migratuen pribilegioez ohartzea eta jabetzea. Ahots migratu eta arrazializatuen gaineko ibilbide historikoa. Gure doinu propioa aldarrikatzen dugu. Gure ahotsak aktibismoan eta lanean.

12

II. MODULUA. ARTEA “(Ber)-Indartzen arteari esker”

 Basoa. Defendatzaileen etxea (Artea)

 Femgarabatek gidatutako saioa


Artea eta Komunikazio Feminista aldageta politikorako, hitza eta artea lurraldearen eta gorputzaren defentsarekin lotuz. Talde feministen komunikazio-tresnak indartzeko ezagutza praktikoak eskuratzeko izango da helburua.




Nazioarteko Jardunaldiak “Eraldiaketa-haziak ereiten”

Lurraren eta lurraldearen defentsa behar globala da. “Eraldaketa- haziak ereiten” jardunaldietan, egungo ekoizpen eta kontsumo ereduaren ondorio ekologiko, politiko eta sozialen inguruan hausnartuko dugu, eta Ongi Bizitzerako jakintza kolektibo alternatiboak partekatuko ditugu. Erdialdeko Amerikako lagunen eskutik, agroekologia, lurraren zaintza eta sendabelarren boterea aztertuko ditugu modu teoriko-praktikoan, indigenen antzinako jakituriaz baliatuz. Mugimendu feminista eta ekologistatik praktikak eta esperientziak partekatuko ditugu, bizitza eta zainketak ardatz gisa kokatzeko aliantzak sortzeko. Alaitasunetik, zaintzatik eta sendabidetik abiatuta aldarrikatzeko eta elkar ikasteko espazioa izango da.


08

 Cristina Enea (Donostia)

 Parte-hartzaile: Lucía Enamorado (IM-Defensoras Honduras), Lilia Prado (Comunidad de Nahuatzen, México), Luz Mary Osorio (Organización Indígena de Antioquía, Colombia), Mery Ann Garling Infanta (Chile – EH), Isabel Hernández y Jesica Marroquín (mujeres maya de Guatemala).

09

 Viveros de Ulía (Donostia)

 Parte-hartzaile: Lucía Enamorado (IM-Defensoras Honduras), Lilia Prado (Comunidad de Nahuatzen, México), Deisy Rivera (comunicadora popular de Santa Marta, El Salvador), Proyecto Basoa Casa de Defensoras y Lucía Ixchíu.



JORNADAS INTERNACIONALES NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK

SEMBRANDO SEMILLAS DE CAMBIO ERALDAKETA-HAZIAK EREITEN

GUATEMALA - HONDURAS - COLOMBIA - CHILE - MÉXICO - EUSKAL HERRIA

EKAINAK, 8 - 9 DE JUNIO

 CRISTINA ENEA - ULIAKO LORE BARATZAK DONOSTIA

MÁS INFO E INSCRIPCIONES
INFO GEHIAGO ETA IZENA EMATEAK
HEZKUNTZA@LUMALTIK.ORG
WWW.DEFENSORAS.ORG





La madre tierra

Olerkia / Zapatisten Laguntza Baseak / Subcomandante Insurgente Pedro eskolako ikasleak, Jatenahun herria, Ricardo Flores Magon udalerrri autonomoa / Caracol La Garrucha (2016)

Yo soy la tierra, yo soy la que sostiene
todas las aguas
mi abrigo es la vegetación,
mi sangre es el petróleo, mi cuerpo la
tierra,
mi corazón el magma, esto es mi existencia.

¡Ay, ay, ay, hijos míos, no dejen que
terminen mi sangre,
mis venas sangran!

¿Por qué perforan mi corazón?
¿Por qué, hijos míos, si yo soy la madre
de todos?

¿Por qué me hieren con tan filosos metales?

¿Por qué son tan crueles conmigo?
¡Déjenme en paz!

Los hijos de maíz que cuidan de mí
también son maltratados igual que yo,
ya estoy roja de tanta sangre.

¡Hijos, hijos, hijos míos! ¡Ayúdenme,
quitenme esta aguja de mi pecho!

¿Por qué mi corazón late poco?
¡Todos, todos, todos, digamos ya, ya, ya
basta!

¡Ya basta de tanta crueldad, ya basta de
extraer mi sangre,
ya basta de saquear mis riquezas!

Si yo les doy todo el sustento diario,
si bien saben que mi sangre es para
alimentar la vegetación,
para dar alimentos a las plantas,
por eso todo el planeta tierra se mueve.

Por eso ahora ¡Ya, ya, ya basta!

¡Ya basta de tanto dolor!

¡Ya basta de tanta crueldad!

¿Por qué los ricos sólo piensan en mi
destrucción?

Por eso juntos digamos ¡Ya, ya, ya basta!





lumatik
HERRIAK

